

BURUSOILTASUNA

Kostu baxuko turismo kapilarraren epizentro bihurtu da Turkia

📁 **ATZERRIA** / Nuria Vila

Estatu espainole-
tik etorri da Jose
Turkiako Istan-
bul hirira. Kez-
katzen hasita
zegoen 33 urte-
rekin, askoz ere zaharragoa
baitzirudien ispilura begiratzu-
gero. Soilduta zegoen eta ho-
rrek tristatu egiten zuen, ara-
zoa estetikoa baino ez bazen
ere. Interneteko foroetan iker-
keta batzuk egin ondoren, bu-
ruari buelta gehiegi eman ga-
be, lanean opor egun batzuk
hartzeko aukera zuenez, Tur-
kiarako hegazkin-txartela ero-
si zuen buruko ilea berresku-
ratzea ahalbidetu behar zion
ebakuntza egiteko. «Berriz ere
ilea izan nahi nuen, benetan
dudan adinaren itxura emate-
ko», aitortu dio GAUR8ri Mala-
gako erizain gazteak Istanbul
hiriko Maral Klinik zentro-
tik, ebakuntza egin dioten lekutik
alegia.

Turkiako hiriko zentro ho-
rretan ia gizon atzerritarrak
baino ez dira ikusten, norma-
lean Ameriketako Estatu Ba-
tuetatik, Britainia Handitik eta
Kanadatik etorriak. Estatu es-
painoleko pazienteak ere badi-
ra: asteen hogeiren bat iristen
dira, eta gehiago, tartean festa
egunen bat tokatuz gero.

2016KO ESTATU KOLPEA

Turkiak mundu osoko bisita-
riak erakartzeko moduko sek-
torea aurkitu du. Batzuek osa-
sun-turismoa deitzen diote
eta etengabe gora egiten ari
da, nahiz eta eraso jihadistek
eta 2016ko estatu kolpe saiake-
rak bestelako turismoan behe-
rakada eragin duten. Sektore
berrian ile-inplanteek sekula-
ko garrantzia dute: 200en bat
zentro daude burusoil izan
nahi ez duten milaka atzerri-
tar tratatzeko. Salneurriak bes-
te lekuetan baino merkeago

Azken hamarkadotan ospe handiko burusoilak ikustera
ohitu gaituzte hedabideek. Hala ere, oraindik herritar
askok sufritu egiten dute ispiluaren aurrean jarri eta bere
irudiari begiratzean. Ile inplanteak dira horiek
beharrezkotzat jotzen duten irtenbidea eta Turkiako
ehunka zentro zeregin horretan espezializatu dira. Prezio
merkeek milaka bezero erakartzen dizkiete.



edukitzeak, zain egon beha-
rrik ez izateak eta Istanbul be-
zalako hiri baten txoko erakar-
garrienak bisitatzeko aukerak
eragin dute osasun turismoa-
ren arloan Turkia goi-mailako
helmuga turistiko bihurtzea.

Turkiako prezioak Estatu es-
painolean eskatzen direnekin
alderatuta garbi ikusten da bi-
sitariek zergatik aukeratzen
duten lehen helmuga. Josek,
aldiz, eguna aukeratzeko ga-
raian Istanbul eskaini zion
malgutasunagatik egin zuen
Turkiaren alde, berak nahitaez
oporak egun zehatz batzue-
tan hartu behar baitzituen.
«Ez dago itxarote-zerrendarik
eta hori garrantzitsua da, bai-
na salneurria ere tentagarria
da», onartu digu. Maral Klinik
zentroan lehen ebakuntza
2.100 euroren truke atera zaio
(ostatua eta mantenua barne,
pazienteak hegaldia baino ez
baitu ordaintzen), eta Estatu
espainolean prezioa 8.000 eu-
rotik gorakoa izango litzateke.
Nolaz horrenbesteko aldea?
Tugrul Maral zentroko zuzen-
dariak honela azaltzen du:
«Ebakuntza egitea ez da mer-
keago Turkian, bizi baldintzak
baizik».


Ebakuntzaren prezioa Tur-
kian hain merkea izateak ber-
tara joatera deitzen badu ere,
Joseri ebakuntza Espainian
bertan egitea ere pasa zitzaion
burutik. Baina zenbait zentro-
rekin hitz egitean ikusi zuen
hobe izango zuela atzerrira jo-
atea. «Sei edo zazpi hilabete
egin nituen Espainiako zentro-
etan ebakuntza nola egin pen-
tsatzen, baina nire gustuko
medikuek sekulako itxarote-
zerrendak zituzten, urtebete-
tik gorakoak! Gainera, prezioa
oso altua da, eta, nik dudan
alopecia maila handia denez,
batek baino gehiagok ezetz
esan zidan. Soilgune txikiak

dituzten pazienteak baino ez dituzte nahi horrelako lekue-
tan, lanaren emaitza arrakas-
tatsutzat hartu ahal izateko»,
kontatu du Estatu espainoleko
zentroak kritikatu.

Turkiako ile-turismoaren
arrakasta ikusita, Estatu espai-
noleko konpainia batzuek fe-
nomeno horren aurkako «ar-
gudioak» eskaintzen dituzte
Interneten, herrialde hartan
ebakuntza egin ondoren pozik
geratu ez ziren pazienteen es-
kutitzak argitaratuta. Kasu ba-
tzuetan emaitza ez zela ona
izan nabarmentzen dute, edo
emandako tratamendua ez ze-
la egokia izan. Gorriz margo-
tutako koadro batean Turkia-
ren ezaugarriak ageri dira:
«Segurtasun falta, arriskua,
medikuaren hizkuntza, komu-
nikaziorako trabak, aldez au-
rretik egindako diagnosirik ez
dago, bidaia estresagarria, eba-
kuntza egin bezain pronto he-
galdia, masifikazioa, dirutan
ordaindu beharra». Koadro
berdean, berriz, Espainian
gauza bera egitearen ustezko
abantailak azaltzen dituzte
konpainia horiek.

DIRU ASKO

Turismo kapilarrak Turkiara
erakartzen dituen bisitariak
gainerakoek baino diru gehia-
go uzten dute herrialdean, Sa-
somer Politika Sozialen eta
Osasunerako Estrategien El-
karteak nabarmendu duenez.
Besteek halako hamar gasta-
tzen omen dute, datu ofizialen
arabera, burusoiltasuna atze-
an utzi nahi dutenek. 2016an
implanteak eta kirurgia plasti-
koa egitera 377.000 atzerritar
joan ziren Turkiara eta 715 mi-
lio dolar gastatu zituzten tra-
tamenduetan, THTC Osasun
Bidaien Turkiako Kontseilu-
aren arabera. Iaz, berriz, bisitari
kopurua ia bikoiztu egin zen:



Ile implanteak jartzeko
pertsona askok Turkiako
zentroak aukeratzen
dituzte. Orrialdeotan
ebakuntza baten bi
momentu.
Nuria VILA

746.000 atzerritar. Betiko tu-
rismoak behera egiten du, eta,
osasun turismoak, gora.

Interneteko foroak eta kon-
tsumitzaileen arteko komuni-
kazio zuzena dira zentro ho-
riek beteta edukitzen dituzten
publizitate iturri nagusiak.
Marak doktoreak dio paziente
kopuruak sekulako igoera izan
zuela iaz, eta horien adina 21
eta 50 urte artekoa izaten dela.
Estetikoki hobetzea izaten da
beraien helburu nagusia. Gizo-
nei baino ez dizkiete egiten
ebakuntzak: «Ilea erortzearen

arrazoiak gizonen artean batez
ere genetikoak dira. Emaku-
meen kasuan, aldiz, hormona
kontua izaten da. Beraz, ez du-
zu buruan ilea ondo daukan
zatirik, eta ez daukagu ilea
nondik hartu», esplikatu du
medikuak. Gizonen kasuan,
soildu gabeko zatietako ilea
hartzen dute falta den lekuan
implantea egiteko. Ilea erortze-
aren arrazoiak psikologikoa ba-
da, ez daukate tratamendurik.

Istanbuleko puntu turistiko-
enetan ohikoa bihurtu da bu-
ruan benda jarrita dabilzan

gizonak ikustea: ebakuntza
egin berriak dira. Anestesia lo-
kala jarrita egiten dituzte eba-
kuntzak. Josek hiru egun bai-
no ez ditu egin herrialdean,
«klinikak exijitzen zuen gu-
txieneko egun kopurua», eta
ebakuntza egin ondoren Tak-
sim plaza, Santa Sofia edo
Meskita Urdina bisitatzeraz joa-
teko gogorik ez zaio geratu.
«Nik argi dut Istanbulera eba-
kuntza egitera etorri naizela.
Buruan 8.200 zulo dituzula,
azken aukera tokiak bisitatzeko
hastea da», azaldu digu.

KLINIKAK ETA «HARATEGIAK»

Hemendik 18 hilabetera itzuli
behar du, emaitza zentrokoek
ikus dezaten. Eta balorazioa
egin diezaioten. Uste du beste
inplanteren bat beharko duela.
«Ebakuntza egitera animatuko
nuke jendea, baina ez Turkia-
ko edozein tokitan. Batzuk kli-
nikak dira, eta besteek harate-
gia dirudite», esan du.

**«Ez dago itxarote-zerrendarik eta hori
garrantzitsua da, baina salneurria ere
tentagarria da», onartu du. Maral Klinikaren
ebakuntza 2.100 euroren truke ateratzen da**

**Turkiako ile-turismoaren arrakasta ikusita,
Estatu espainoleko konpainia batzuek
fenomeno horren aurkako «argudioak»
eskaintzen dituzte Interneten**